

«LABORAL KUTXAREN ALTXORRA»

LEHIAKETAREN OINARRIAK ETA PROZEDURA

1.- Antolatzailea

Caja Laboral Popular Coop. de Cr ditok —aurrerantzean, LABORAL Kutxa—, helbide soziala Arrasaten (Gipuzkoan), Jose Maria Arizmendiarieta pasealekua zk.g., 20500 duenak, lehiaketa bat egingo du bere sare sozialetan eta <http://laboralkutxarenaltxorra.com/> mikrositean.

Sustapenaren jabetza intelektuala LABORAL KUTXArena da.

2.- Doakotasuna

Sustapena doakoa izango da; hau da, sariak lortzeko ez da beharrezkoa izango kuotarik edo diru kopururik ordaintzea.

3.- Lurralde-eremua

Sustapenak Espainiako estatuko penintsula-eremu osoa hartzen du. Internet bidez hartu ahal izango da parte, soil-soilik: LABORAL Kutxaren sare sozialen bidez eta lehen aipaturiko mikrositearen bidez.

4.- Iraupena

LABORAL KUTXAREN ALTXORRA 2019ko urtarriletik abendura bitartean egingo da.

5.- Sustapenean parte hartzeko legitimazioa

Sustapenean parte har dezakete oinarriko hirugarren puntuan zehaztutako lurralde-eremuan bizi diren 18 urtetik gorako pertsona fisiko guztiek, baldin eta, aurrez, lehen aipaturiko mikrositean sartzen badira.

Lehiaketan parte hartzen dutenek ez dute inongo enpresaren inolako konpentsaziorik edo ordainsaririk jasoko, eta uko egiten diote horren inguruko edozein erreklamazio egiteari. Parte-hartzaileek ezin izango dute dirurik jaso sarien ordeaz.

6.- Sustapenaren garapena

6.1. Prozedura.

Maiatzean hasi eta abendura bitartean, LABORAL Kutxak zenbait proposamen edo erronka (aurrerantzean, mini-joko) plazaratuko ditu bere FACEBOOKeko profilean, LABORAL KUTXAREN ALTXORRA jokoan parte hartzeko.

Proposatutako mini-jokoetako bakoitza gainerakoetatik independentea izango da eta parte hartzen den joko bakoitzeko zozketa batean parte hartzeko eskubidea egongo da.

Mini-joko bakoitzak parte hartzeko aukera desberdin bat proposatuko du. Hain zuen, mini-joko bakoitzaren hasieran azalduko da joko jakin horretan parte hartzeko modua.

Mini-jokoetako bakoitzean proposatutako erronka burutzeagatik, partaide bakoitzak mini-joko horri dagokion zozketan parte hartzeko kode bat eskuratuko du. Eskuratutako kodea <http://www.laboralkutxarenaltxorra.com> mikrositean erregistratu beharko da, eskatzen den inprimakia betez:

- Izena
- Abizenak
- Helbide elektronikoa:

Jokalari bakoitzak bere helbide elektronikoa ematen duen bakoitzean mini-joko batean behin bakarrik jokatzeko eskubidea izango du.

6.2. Balidazioa

Partaidetza egokitzat jotzeko, bi baldintza bete beharko dira:

1. Planteatutako mini-jokoan zuzen jokatzea, eta zehaztutako epeetan egitea.
2. Pertsona hori berori egoki erregistratuta egotea <http://www.laboralkutxarenaltxorra.com> mikrositean eta mini-jokoetako bakoitzean eskuratutako partaidetza-kodea zuzen idaztea.

7. Sarien irabazleak

Partaide guztien artean 100 €-ko Gif4you txeke bat zozkatuko da.

Zozketa hautazko sistema informatiko bidez egingo da, partaidetza-epea amaitu ondoren.

Jokoan parte hartzeko, erabiltzaile bakoitzak harremanetarako helbide elektronikoa baten bidez identifikatu beharko du bere burua.

Sustapenean parte hartzeko, lehiaketako irabazleek beren irudi-eskubideak eta haiek ustiatzeko ahalmena lagako dizkiote LABORAL Kutxari, material hori

sustapen-helburuekin erabil dezan hedabide guztietan eta denboraldi mugagabeen.

5 egun baliodunetan sarituekin harremanetan jartzerik ez badago, beraiek emandako datuak erabiliz, saria ordezkoez izango da, eta horrela hurrenez hurren, zozketan izandako ordenaren arabera.

8.- Sarien deskribapena eta entrega

Lehiaketaren irabazleek 100 euroko motibatu txeki bat eskuratuko dute. Txekia [web.laboralk.gif4you.es](http://www.laboralk.gif4you.es) webgunean trukatzeko kodea izango da.

LABORAL Kutxak igorriko ditu kodeak <http://www.laboralkutxarenaltxorra.com> webgunean izena emateko partaideak erabili duen helbide elektronikora. Horretarako, zozketaren irabazlea izan dela jakinarazteko mezu elektronikoa jaso eta 5 eguneko epea izango du saridunak, mezu horretan bertan saria onartzen duela erantzuteko.

Saridunak aipaturiko epean erantzuten ez badu, saria lehenengo ordezkoiari emango zaio, betiere aipaturiko baldintzak betetzen baditu.

Sariak indarreko legeek ezarritako zergen pean egongo dira, eta sarituek sariei dagokien zerga ordaindu beharko dute. Sariaren ordezkoi, ezin da haren balioa dirutan eskatu.

9. LABORAL Kutxaren eskubideak eta ahalmenak

Aplika daitezkeen legeen arabera, LABORAL Kutxak eta aplikazio honekin edota lehiaketarekin lotutako enpresa guztiek berentzat gordetzen dute arau hauek baliogabetzeko, deuseztatzeko edo aldatzeko eskubidea, bai eta lehiaketa, osorik edo partzialki, bertan behera uzteko eskubidea ere, baldin eta, edozein arrazoiengatik, lehiaketa ezin bada pentsatu bezala egin, akats tekniko baten, birus informatiko baten, bortxaren, iruzurraren, lehiaketaren segurtasuna edo administrazioa hondatzearen, edo kontrolpean ez dauden beste arrazoi batzuen ondorioz. Horrelakorik gertatuz gero, LABORAL Kutxak eta aipaturiko enpresek ez dute inolako betebeharririk edo erantzukizunik izango.

LABORAL Kutxak eta aplikazio honekin edota lehiaketarekin lotutako enpresek ez dute emango parte-hartzearen emaitzei edo edozein eskaeraren egoerari buruzko informaziorik. LABORAL Kutxak eta aplikazioarekin edota zozketarekin zerikusia duten enpresek ez dute inolako erantzukizunik izango, baldin eta informazioaren bat zuzena edo zehatza ez bada edo osorik ez badago, webguneko erabiltzaileen erruz gertatu nahiz zozketaren erabilerari lotutako edo zozketan erabilitako ekipoen erruz. Era berean, ez dute inolako ardurarik edo erantzukizunik izango, huts teknikorik, hardwarearen hutsik edo softwarearen hutsik gertatzen bada, sarea eteten bada, ordenagailuko transmisioan nahasketarik badago, edo zozketan zehar bestelako

funtzionamendu okerrik badago. Halaber, ez dute erantzukizunik hartuko, eragiketan edo transmisioan akatsik, omisiorik, hondatzerik, eteterik, ezabatzerik edo atzerapenik gertatzen bada, komunikazio-linean hutsegiterik badago, edo lehiaketan parte hartzeko emandako informazioa lapurtu, suntsitu, baimenik gabe erabili edo aldatzen bada. LABORAL KUTXAk eta aplikazioarekin edo lehiaketarekin zerikusia duten enpresek ez dute inolako erantzukizunik onartuko baldin eta linea edo sare telefonikoan, lineako konexio-sistemetan, zerbitzarietan, ordenagailu-ekipamenduan edo softwarean arazoren bat edo hutsen bat badago, edota mezu elektronikoko okerrik bidaltzen bada arazo teknikoaren ondorioz edo helbide elektronikoen ondorioz, giza huts baten ondorioz, eta Internet trafikoan edo webguneren batean buxadurarik badago. Ildo beretik, ez du erantzukizunik onartuko lehiaketan parte hartzeagatik edo lehiaketarako materiala deskargatzeagatik partaidearen edo beste edozeinen ordenagailuari kalterik eragiten bazaio. Edozein arrazoi dela eta, eskaera bat ezin bada aurreikusitako moduan ikusi edo aurkeztu (birus informatiko baten edo antzekoen, bortxaren, iruzurraren edo akats teknikoaren ondorioz), LABORAL Kutxa eta aplikazio honekin edota lehiaketarekin lotutako enpresak ez dira erantzule izango.

Orobat, LABORAL Kutxak beretzat gordetzen du zilegi ez den moduan edo profil batekin baino gehiagorekin parte hartzen duten pertsonen saririk ez emateko eskubidea.

10.- Irudi-eskubidea lagatzea

Sarituak, saria jasotzeko eskubidea izango badute, LABORAL Kutxari baimena eman behar diote beren izen-abizenak saritu gisa argitaratzeko, entitateari sustapen hau hedatzeko egokiak iruditzen zaizkion argitalpenetan edo komunikabide telematikoenetan. Baimena eman ezean, saria jasotzeko eskubidea galduko dute, eta ordezkoei jasoko dute, zozketan egokituriko ordenaren arabera.

11.- Oinarriak onartzea

LABORAL Kutxak sustapen-jarduera honen ondoriozko edozein gorabehera egoki irizten dion eran ebatzi ahal izango du, baita sustapena atzeratu, aldatu edo ezeztatu ere.

Bezeroak zozketan parte hartzeak esan nahi du oinarri hauek oso-osorik onartzen dituela. Oinarriok www.laboralkutxarenaltxorra orrialdean kontsulta daitezke.

12.- Erantzukizuna

LABORAL Kutxak eta sustapen honekin edota zozketarekin lotutako enpresek ez dute erantzukizunik hartuko, hirugarrenei edo Interneti leporatu ahal zaizkien

galera, hondatze, lapurreta eta atzerapenengatik, edo beste edozer gauzarengatik, aplikazio hau erabiltzea edo zozketan parte hartzea galarazten badute, edo horren ondorio badira.

Sustapenean parte hartzean, parte-hartzaile bakoitzak —eta, dagokionean, gonbidatuak— onartu egiten du, zuzenbidean beharrezkoa izan daitekeen erarik zabalenean, LABORAL Kutxa eta sustapen honekin edota zozketarekin lotutako enpresak salbuestea, zozketan parte hartzeak edo sarien erabilerak (sarituen kasuan) zuzenean edo zeharka edozein erreklamazio edo kalte eragiten badute. Bestalde, baimena ematen diote LABORAL Kutxari beren izenak, ahotsak edo antzekoak erabiltzeko, zozketan edo zozketarekin lotuta, ezagututako edo oraindik aurkitu beharreko edozein modutan, eskaeraren amaierako uko-agirian eta adierazpenean ezarritakoaren arabera.

Era berean, LABORAL Kutxak eta sustapenarekin edo lehiaketarekin zerikusia duten enpresetako edozeinek ez dute bermatzen

<http://www.laboralkutxarenaltxorra.com> mikrositea etengabe eskura egongo denik, jarraitutasun osoa izango duenik eta hutsik egingo ez duenik. Ondorioz, lehiaketan parte hartzeak esan nahi du berariaz onartzea, indarreko legeriak ahalbidetzen duen zabaltasunik handienean, aipaturiko enpresak eta erakundeak erantzukizun orotik kanpo uztea webgunearen eskuragarritasun faltagatik, jarraitutasun faltagatik edo funtzionamendu txarragatik, sustapen honetan parte hartzea galaraziz gero, parte-hartzea oztopatuz gero, garapen normala galaraziz gero, edota edukiak edo partaidetzak modu desegokian transmitituz gero.